

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BASTIDAKO UDALA

#### **2/2020 Dekretua. Eskuordetze berezia zinegotzi bati, baimentzeko 2020ko urtarrilaren 11ko ezkontza zibila**

Abenduaren 23ko 35/1994 Legearen artikulua bakarrik aztertu da, zeinak Kode Zibila aldatzen duen alkateek ezkontzarako baimena emateari dagokionez. 51. artikulua idatzi berriak lehen puntuan ezartzen du erregistro zibilaren ardura duen epaileak, ezkontza egingo den udalerriko alkateak edo eskuordetutako zinegotziak dutela ezkontza baimentzeko eskumena.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.s) artikulua, artikulua horren 3. puntuak eta 23.4 artikulua eta Toki erakundearen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 43., 44. eta 45. artikuluek ezarritakoa kontuan harturik, honako hau Ebatzi dut:

Lehenengoa. Zuriñe Blas Bouzas zinegotziari eskuordetze berezia ematea baimentzeko 2020ko urtarrilaren 11n, 12:00etan, Bastidako udaletxean egingo den ezkontza zibila.

Bigarrena. Ebazpen hau zinegotzi interesdunari jakinaraztea; hurrengo bilkuran horren berri udalbatzari ematea, eta ALHAOn eta udaleko iragarki taulan argitaratzea.

Hirugarrena. Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 44. artikulua 2. paragrafoak xedatutakoarekin bat etorritik, eskuordetzeak dekretu hau eman eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Bastida, 2020ko urtarrilaren 10a

*Alkate-lehendakaria*  
**LAURA PÉREZ BORINAGA**